



Bettino Craxi, 80ko hamarkadan, Italiako lehen ministro zela. Juan Carlos I. Espainiako erregearekin ageri da, Madrilgo Zarzuela jauregian.

Bettino Craxi Italiako gobernuburu ohia Tunisiako erbestean hil da

Politika arloko hiru ustelkeria aferatan auzipetu eta kondenatu zuten

Erredakzioa / Donostia

Italiako lehendabiziko gobernuburu sozialista, Bettino Craxi, atzo hil zen, Tunisian, 65 urtetan. Hara ihes egin zuen 1994an, Italiako justiziak harrapa ez zezan, politi-

kari lotutako ustelkeriaz akusatzen baitzuen. Errekaratu baino lehen, politikari arrakastaduna izan zen Craxi, batik bat Italiako lehen ministro izan zelarik 1983 eta 1987. urteen artean. Egin zizkioten auziak «konplotetzat» jo zituen Craxik.

BIHOTZEKOAK jota hil zen Bettino Craxi, atzo, 65 urtetan, Hammameteko bere etxean, Tunisiatik 60 kilometro. Diabetes eta minbizia pairatzen zituen azken urteotan eta, 1999ko urrian, Italiako agintariei eskatu zien herrirat sartzera uzteko, han artatua izateko. Alabaina, ez zuen Erromatik erantzunik jaso, eta Tunisian geratu zen.

Italiarat sartzean, gutxienez 5 urte eta erdirako espetxe zigor bat bete beharra arriskatzeko, ustelkeria politiko auzi batean kondenatuta izan ondoren. Beste bi epaiketa ere egin zizkioten Tunisian ihesean zegoelarik, baina bi auzi horien gatziguak hautsita egon ziren eta berriz egitekoak ziren. Hiru epaitzeen artean, 27 urterako presondegi gatzigura kondenatua izan zen Bettino Craxi.

Arrakasta handiko pertsona publikoa izatetik, peko errekarat erori zen politikaria bihurtu zen Craxi. Italiako politika mundua usteldu zuten finantzamendu politiko legez kanpoko aferetan

harrapatzen hasia izan zen 1992. urtetik aurrera. Lehengoz Milango bere adiskide hurbilak ziren *Esku Garbiak* ikerketa zabalean harrapatuak izan, baina bere izena bera ere aipatuta zen urte horretako azaroan. Hortik aurrera, Craxiren izena agertu zen agerian jarritako politika ustelkeria afera guztietan, hala nola Banco Ambrosiano, Enimont, Milango metroa edo Enel auzietan.

Herritarrek «ladrone» deitu zioten

Craxik, haatik, beti gezurtatu egin ditu bere kontra egindako akusazioak, eta ustelkeria politikoan sekulan ez duela eskurik sartu aldarrikatu du hasieratik bururaino. Alderdi politikoen finantzamendu legez kanpokoak guzti-guztiek erabilitako jokaerak zirela ziurtatu zuen, eta bere aurkako auzibideak «konplot» eta «jaukimendutzat» jo zituen. «Konplot» horren bultzazaila nagusitzat salatu zuen Antonio Di Pietro *Esku*

Garbiak operazioko epaile nagusia. Haatik, hedabideen presioak eta herritarrek azaltzen zioten biguina Italiatik alde egiterat behartu zuen. Bere erbesteratzearen irudi ohargarriena 1993ko apirilako egun hura izan zen: Erromako bere etxetik atera zelarik, jende multzoak txanponak botatzen zizkin, «ladrone» (lapur) oihukatuta.

Jendeen biguina jasan aurretik, karrera politiko aipagarria egin zuen Craxik. Milanen sorturik 1934ko otsailaren 24an, PSI Italiako Alderdi Sozialistako kide egin zen 18 urterekin. Mailak banan-banan igota, PSiko idazkari nagusi izatea lortu zuen, eta kargu horretan geratu zen 1976 eta 1993 artean. Alderdi honen Milaneko diputatu izan zen, halaber, 1968 eta 1992 tartean, salbu Italiako gobernuburu kargua bete zuelarik, 1983tik 1987ra. Bigarren mundu gerra osteko lehendabiziko sozialista izan zen postu horretara deitua eta karguan luzeenik egondako Kontseiluko presidentea.

CDU, auditoriaren beldur

■ *Kohlen dimisioak ez du krisiaren amaiera ekarri*

Efe / Berlin

HELMUT KOHL-EK alderdiko ohorezko lehendakaritza utzi izanak ez du itzali ahal izan CDU Alemaniako Alderdi Kristaudemokrataren krisia. Are gehiago, krisia sakontzen ari da, beste bi irregulartasunen berri jakin baitzen atzo.

Batetik, Berlingo B.Z. egunkariak atzo kaleratu zuenez, Wolfgang Schauble CDUko liderrak ohartarazi die taldekideei alderdiaren diru kontuei buruzko kontu ikuskatzeak ustekabe txarrak eman ditzakeela. Igandean jakinaraziko da ikerketa horrek zer dioen, baina B.Z.-ren

arabera, Schaublek esan du bederatzi milioi marko gehiago zeudela kontu ezkutuetan. Orain arte, bi milioi soilik onartu zituen CDUK.

Bestetik, Roland Koch Hesseko lehen ministroak aitortu egin zuen atzo Suitzan diru kontuak izan zituela CDUK eta urtero dirutza jasotzen zuela bertatik.

Bonnen, fiskalek Kohlen bi laguntzailereren etxeak arakatu zituzten asteartean.

Atzo, Kohlek berretsi egin zuen ez dituela CDUri dirua ezkutuan eman ziotenen izenak emango eta azpimarrratu zuen diru hori ez zela «inor erosteko».

Aurrez aurre borrokan ari dira Groznin

■ *Hiriburua hirizpalau egunetan hartu nahi du Errusiak*

Erredakzioa / Donostia

GROZNI Txetxeniako hiriburuko kaleetan aurrez aurre borrokan ari dira Txetxeniako gerrillariak eta Errusiako soldaduak, eta elkarri iraintzeko oihuka.

Sunzha ibaiko zubia eta Grozni erdiko Minutka Plaza hartu zituztela esan zuten atzo Errusiako iturriek. Gainera, ospitale eta lantegi bana kontrolpean dituztela esan zuten, eta borroketan 150etik gora txetxeniak hil zituztela azpimarratu.

Hirizpalau egun barru hiriburua menpean izango duela zehaztu zuen Errusiak.

Txetxeniako iturriek besterik adierazi zuten ordea. Errusiako soldaduak Grozni erdiko kaleetara sartzeko ari zirela onartu zuten, baina haiek uzten dietelako. «Hala segada egitea errazago da», zehaztu zuten txetxeniarrak.

Errusiak Grozni hartuko duenik ez zuten ukatu Txetxeniako iturriek. «Inozoa litzateke hori ezeztatzea, Errusiako Armada munduko jendetsuena delako eta ondo prestatua. Baina izugarri ordainduko du trukean», esan zuen atzo Txetxeniako Armadako operazio aginteko komandante Mumnadi Saidaiyek.

Gobernu berria Austrian

■ *Haiderren eskuin muturra kanpoan geratu da*

Agentziak / Viena

AUSTRIAK Gobernu berria izango du bihar, Legebiltzarrrerako hauteskundeak egin eta hiru hilabete baino gehiago igaro direnean. SPOE alderdi sozialdemokrata eta OEPV kontserbadorea akordio batera iritsi ziren atzo goizaldean, zortzi orduko azken bilera luze baten ondorioz.

Bosgarren legegintzaldia jarraian izango da SPOE-OEPV gobernu batekin. Aurrekoetan baino zailtasun handiagoa izan da orain arte, batik bat kontserbadoreek erabaki zute-

lako oposizioan geratzea urriko hauteskundeetan bigarren postua galdu ondoren. Boto gutxi batzuen aldeaz, Joerg Haiderren FPOE alderdi libera-la izan zen bigarrena. FPOE, ordea, eskuin muturrekoa da eta Thomas Klestil Errepublikako presidentek ez zuen inolaz ere nahi gobernua osatzea, «Austriak nazioartean duen irudia ez kaltetzearen». Haiderrek hitz gogorrak izan zituen atzo Klestilentzat, eta ziurtatu zuen gobernu berriak ezingo duela legegintzaldi osoa bete. Analistek arrazoia eman diote.